



PALESTINAREKIN ELKARTASUNA (BDZ)

STEILAS sindikatuarentzat, herri palestinarren borrokarekiko konpromisoa eta elkartasuna ez dira duela gutxikoak. 2010ean, BDZ Kanpainarekin bat egin genuen (Boikot, Desinbertsioak eta Zigorak Israelgo Estatuari), eta, harrezkero, Palestinarekiko elkartasun-ekimen askotan parte hartu dugu.

Hala ere, azken urteotan egoerak okerrera baino ez du egin. Duela gutxi, *Human Rights Watch* edo Amnesty International bezalako nazioarteko erakundeek hainbat txostenetan salatu dute Israelek apartheid erregimena ezartzen diela palestinarrei.

Israelek Palestinako lurak bereganatzen jarraitzeko, bertako biztanleak lekualdatzeko, kolonia berriak eraikitzeko eta zigor kolektiboa suposatzen duten neurriak (etxeen eraispenak, atxiloketa arbitrarioak, mugimendu-murrizketak) ezartzeko dituen politika eta praktikaz gain, azken bi urte hauetan egiaztatu dugu areagotu egin direla Israelgo estatuak Palestinako gizarte zibileko erakundeak jazartzeko, ospea kentzeko eta kriminalizatzeko egiten dituen ekintzak.

Eskubideen urraketak salatzen dituzten ahotsak isilarazteko ahalegin horretan, 2021eko urrian giza eskubideen aldeko sei erakunde palestinar erakunde terrorista izendatu zituen Israelek. Hori aurrekaririk gabeko eraso da, ebidentziarik eta legeoinarririk gabekoa (hala salatu dute Nazio Batuetako zenbait kontalarik), Palestinan giza eskubideak betetzearen alde lan egiten duen nazioarteko komunitate osoaren aurkakoa, eta aurrekari arriskutsu bat sortzen du, Palestinan giza eskubideen urraketak salatzen duten erakunde guztiak mehatxatzen dituena.

Baina apartheid erregimen hori ez litzateke posible izango nazioarteko komunitatearen eta enpresa transnazionalen konplizitate gabe. Duela gutxi, Europako Herritarren Ekimen (ICE) bat jarri da abian, Palestinako lurralde okupatuetako legez kanpoko asentamenduekin merkataritza amaitzeko lege bat eskatzeko. Baina Europako Batzordeari merkataritza-transakzio horiek arautzeko eskatzeko lege-proposamena milioi bat sinadura biltzen badira bakarrik aurkeztu ahal izango da.

Horregatik, STEILASetik:

1. Elkartasuna eta babesaren adierazten diegu Israelek joan den urrian terrorista izendatu zituen Palestinako giza eskubideen aldeko sei erakundeei.
2. BDZ kanpainarekin bat egiten dugula berresten dugu, eta afiliatuei eta herritarrei eskatzen diegu Israelgo legez kanpoko asentamenduekiko merkataritza geldiarazteko kanpaina sina dezatela.
3. Deia egiten diegu euskal erakunde eta enpresei Israelgo apartheid-arekin kolaboratzeari utz diezaioten, eta, bereziki, CAF trenbideen euskal enpresari, zeinak Jerusalemen tranbia eraikitzen jarraitzen baitu, Palestinako Lurralde Okupatuan legez kanpoko kolonia israeldarrak hiriarekin lotuko dituena.